




LARRIALDI EGOERAN BIDANIA-GOIAZTEN HARTU DIREN NEURRIAK ETA EKIMENAK



COVID-19 pandemiak sortutako larrialdi egoera dela eta, herritarren beharrak eta zailtasunak zein diren identifikatu eta, momentuak eskatzen zuen bakoitzean, horien araberako neurriak hartu dira Bidania-Goiatzen.

Jarraian aste hauetan zehar hartutako neurriak:

Bidania-Goiazko Udalak

Agindu orokorrek eragindako behar-beharrezko neurriak:


1. Langileen segurtasuna bermatu.
2. Idazkaritzako aurrez aurreko arreta kendu.
3. Udalaren eraikinak (udaletxea, eskola, guraso eta gazte lokalak, balio anitzekoa eta frontoia) eta parkeak itxi.
4. Tabernen itxiera ziurtatu.

Herritarrekiko harremanak:

5. Idazkaritzako aurrez aurreko arretarik ez dagoenez, telefonoa desbideratu eta korreoari garrantzia eman.
6. Saiaz Mankomunitatearekin elkarlanean aritu.
7. Eskularru, pantaila, maskarila, gel hidroalkoholikoa... eskuratu eta zerbitzuetan lanean ari direnei banatu.
8. Herriko langile eta garbitzaileekin mediku kontsulta, denda eta etxe atariak desinfektatu.
9. Hainbat bando (laguntzak, zaborra, txakur kakak, herria txukun mantentzen jarraitzeko eskaerak...) zabaldu.
10. Idatzizko bandoen buzoneoa neurtu. Honengatik, webguneari eta "Herritarrak" Whatsapp taldeari garrantzia eman.
11. Larrialdiko telefonoak behin eta berriz zabaldu.
12. Dirulaguntzen berri eman.
13. Hiru garbiguneetako atek irekita utzi.
14. Zugasti harategiarekin etengabeko harremana bultzatu eta babesak eman. Horretarako Udalaren esku dauden baliabideak eman.
15. Behar duten herritarrei enkarguak etxera eramateko sarea osatu eta martxan jarri.
16. Liburutegiko jarduera korreo elektronikora bideratu.
17. Indarkeria matxistaren aurrean gure haserrea azaldu, udal eta herri bezala.



LARRIALDI EGOERAN BIDANIA-GOIAZTEN HARTU DIREN NEURRIAK ETA EKIMENAK



Aisia:

18. Asteburuetakoko musika saioak babestu eta beharrezko Udal materiala utzi.
19. Herrian grabatutako bideoak zabaldu.
20. Liburutegiko liburuen eskaerak korreo elektronikoz egiteko aukera eskaini.
21. "Marrastuko al dugu?" ekimena martxan jarri, Ernio Guraso Elkartearekin elkarlanean.
22. Udal Liburutegitik "Etxealdiko literatur lehiaketa" aurrera eraman.
23. Apirilaren 26an, 14 urtetik beherako haurrek etxetik ateratzeko baimena zuten egunean, horretarako betebeharreko arauen zerrenda bidali.

Bestelakoak:

24. Udaletxeko obrarekin jarraitu, betebeharreko neurriak jarraituz.

Saiaz Gizarte Zerbitzutik

Agindu orokorrek eragindako behar-beharrezko neurriak:


1. Langileen segurtasuna bermatu.
2. Bulegoko aurrez aurreko arreta kendu.
3. Eguneko zentroa itxi.

Herritarrekiko harremanak:

4. Bulegoko aurrez aurreko arretarik ez dagoenez, telefonoa desbideratu eta korreoari garrantzia eman.
5. Bidania-Goiatzko udalarekin elkarlanean aritu.
6. Gizarte langileak eta Hots-Atsegineko langileak telefonoz erabiltzaileekiko kontaktua mantendu.
7. Etxez etxeko laguntza, behin behinean, bertan behera utzi.
8. Hots-Atsegineko langileak, behar izan duten herritarrei, janaria eta botikak etxera eraman.
9. Etxez etxeko zerbitzua, beharrezkoa ikusi den kasuetan, berriro aktibatu.
10. Eguneko zentroak itxita jarraitzen duenez, langileak erabiltzaileen etxeetara bisita egiteko aukera eskaini.



**LARRIALDI EGOERAN
BIDANIA-GOIZEN HARTU DIREN
NEURRIAK ETA EKIMENAK**



11. Eguneko zentroko erabiltzaileei bertako soinketako materiala etxeetara eramateko aukera eman.
12. Eguneko zentroko erabiltzaileei idazteko, margotzeko eta kalkulorako materiala banatu.
13. Langileek behar dituzten babesak banatu.
14. Zaintzarako behar izan dutenentzat baimenak egin.
15. Eskolako ikasleen egoera ona ziurtatu eta beharrezko baliabideak eman.
16. Indarkeriaren kontrako telefonoak zabaldu.
17. Zoritxarrez, genero indarkeria kasu bat ere izan da. Hasieratik biktima babestu eta beharrezko baliabideak eman.
18. Dolurako psikologo zerbitzua hitzartu, beharko balitz prest izateko (zorionez oraindik ez da erabili).

Bidania-Goiatzen, 2020ko apirilaren 24ean

**ELKARREKIN ETA GUZTIOK BAT EGINDA LOTUKO DUGU!
ZAINDU GAITEZEN!**
